

Hilari Gantxegi Iturbe

*Bergara,
Gipuzkoa
(1910-1995)*

Aurkibidea

Biografia



1910ean Osintxuko Eguzkitza baserrian jaioa. Bertan bizi izan zen 1995ean hil zen arte. Aurreko belaunaldiengandik jaso zuen lihoa lantzeari buruz zekiena.

Zintak

BER-061

• **Proiektua:** Bergarako euskara

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data**: 1985-03-26
- **Iraupena**: 108 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea**: Bergarako Udala

BER-073

- **Proiektua**: Linua, ehuna eta artilea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data**: 1993-07-16
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Emalea**: Bergarako Udala

BER-238

- **Proiektua**: Bergarako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Jauregi, Jose Ramon "Epelde"
- **Data**: 1991-07-21
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Audio Analog

Pasarteak

1. Auzoko etxe eta baserriak

- **Erref**: BER-061/002
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:02:16. **Bukatu**: 00:05:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Kostei etxea. Antzinako etxe eta baserriak. Berritutako baserriak: Lezaso (Lezarrisoro); Gomezkorta; Egiaga Barrena. Baserri bat berritu behar zeneko anekdota polita.

2. Eskola kontuak; dotrina eta abadeen inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-061/004
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:08:56. **Bukatu**: 00:11:13
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Eskolan gauza gutxi ikasitakoa. Kanta zaharrak zeini ikasi zizkion.

Abadeen izenen zerrenda. Dotrina zelan ikasi zuen; 10 urterekin jaunartze handia egin zuen.</p>

3. Dotrina ongi ikasi ezean, kalabaza umeari

- **Erref:** BER-061/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Dotrina bertako euskararen ematen zuten. Don Manuel abadea. Dotrinari buruzko galderak ondo erantzun beharra zegoen txartela lortzeko. Gaizki erantzunez gero, kalabaza bat ematen zitzaion umeari, eta kalean beste umeengandik irainak jasotzen zituzten batzuek.

4. Kanta-saltzaileak plazan

- **Erref:** BER-061/006
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Kanta zaharrak. Kanta-saltzaileak plazan. Bertso banaka batzuk dakizki. Kantapaperak gustuko zituen.</p>

5. Ohitura zaharrak: hil-deia

- **Erref:** BER-061/009
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:19:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Hil-deia ("Hil-dia"); deiadarra. Sineskerak. Baserri izenak; toponimia.</p>

6. Aurreko belaunaldiak karlistaden inguruan aipatzen zituzten kontuak

- **Erref:** BER-061/014
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:28:33. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea

Laburpena:

Amandreak karlistaden inguruko kontuak zekizkien. Foruak berrezartzearen inguruko mugimenduak izan ziren Elosu inguruan. Erregeen jarrera foruekiko. Bergarako ituna. Antzinako bizimodua, baketsua.

7. Angiolilloren urkamendia Bergaran (1897)

- **Erref:** BER-061/015
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:30:01. **Bukatu:** 00:33:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Amandrearen inguruko kontuak. Esne-saltzen ibiltzen zen. Urkamendiaren inguruko azalpenak. Hilarik ama Mendiolakoa zuen (Eskoriatza).</p>

Transkripzioa

Nere amandria bisabuela zan Larraña Handiko alabia, Bergako Larraña Handiko alabia, eta Larraña Handitik orduan be..., hamen guretan ez ei zan saltzen esneik, pentsau bez, baiña Larraña Handitik eta bai. Marmitta eskuan eruten ei eban. Ez aban erungo esne asko, baiña egunian-egunian esniakin kalera bera. Ta berak ez dakitt hamazazpi edo hemezortzi urte. Ta esan ei eben esne-bezeruak eta, hola jun zienian esan ei eben: "Gaur, badakizu gaur edo bihar ze funziño edo ze ikusmira daon Begaan?". "Ta zer dao ba?". "Urkamendixa". "Ene, urkamendixa dao?", ta "Bai". "Ze ordutan?". "Atsaldian". "Etxian lagatzen ba doste neuk be etorri bihar dot". Ta esan ei otxen etxian, ta esan ei otxen: "Kontuz ibilli hari, gero batzui ez ei jakone ondo jausten eta". "Ez, juan bihar dot ba!". Ez dakit bera bakarrik izan zan, bera bai behintzet. Goiko Plazan, juzgauan aurrian, altura haundi baten kolokauta ei euan sillioi bat, silloe edar bat, eta haraxe ekarri ei eben kotxia landuak, horrek lehen kotxe brillodun horrek, kotxe landuan, eta jesuitten jantzixa jantzitta, eta danen publikuan abadia plantau ei jakon konfesau edo, beran asoluziñua emon edo, eitteko edo ta. Euzkan sekretuak, bueno, euzkan gauzak ta damutasuna ein eta oingo moduan esplikau ei otxan, ta berak zela jangoikuai kontu emon bihar ei otxan, abariak esan ei otxan. Eta ezetz, ezetz, ezetz. Haura baiño lehen bera joiala bai, eta berak emongo otxala jangoikuai kontua. Ez bereinkatu, ez konbertidu, ezetara be. Ta halaxe jaso eta plantau ei eben. Esplikaziñuak eta bere orduak danak aillegau zienian, bat ez ei euan iñun, dana begi-bista guztia teillaturaiño ixota jentia!! Baiña ze jente ei euan...! Ta ordenia emun otxanian, borreruak tornuan uhela ipini lepotik, tornuai emun buelta, zela itto eben. Hauraxe ei zan urkamendixa. Zela mihiña paparrian behera atara aban. Esplikau? Ta hori nere aldian graziosa. Hori nere amandria bisabuelak, Larrañako alabiak. Ta sekula etxakola damutu. Ba ei zan, esaten eban harek, sei hilddakua; esaten eban, ta gaiñera gizon haundixa.

8. Antzinako bizimodua; gizartearen aldaketak

- **Erref:** BER-061/019
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:36:35. **Bukatu:** 00:37:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Hil-deia. Karteroa zaldiz ibiltzen zen. Berrikuntzak: erlojua. Amandreak erlojua ezagutu zuen baina aurrekoek ez zuten erlojua ezagutzen.</p>

9. Baserriko bizimodua; sukaldearen egitura

- **Erref:** BER-061/020
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:37:11. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Sukaldearen erdian egoten zen sua antzinako baserrietan; beraiek "supila" esaten zioten.

10. Lixiba nola egiten zen

- **Erref:** BER-061/021
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lixiba nola egiten zen azaltzen du. Egurrezko tinak erabiltzen ziren. Harizko arropa erabiltzen zen.

Transkripzioa

- Ta erropia, berriz, lixibia. Tiñia. Tiñia haundixa. Egurrezko tiñak. Eren... zela esango dotsut ba, zela esplikauko dotsut ba? Ikusiko dittuzue ba ardantokittan-ta barrika haundixak?

- Bai.

- Ba, behia estua ta gora zabalik izetia. Tiñia. Ta, ba, dana erropa zurixa ohekua eta andrakumian-- oin ez da eruaten baiña ni ibilitta be banao ni gaztia nintzanian-- ta kamixia mangaluzia, eskote txiki-txikixakin kamixia. Ta dana harizkua. Batzuk fiñauak beste batzuk bastotxuauak, dana harizkua. Ta gero, ba, haura lixibia jabondu ta han dana tolosturan ipiñi eta hautsakin, sutako hautsakin egosi eta erramua ta elauntz zatixa-ta sartuta

baldan. Hiru edo lau baldakada hortaikuak goitik behera bota hari, erropa hari. Ta gero harek behian, txorruakin, askia eukan parajia izeten zan. Ta han askako urakin behin hiru bat edo lau bat botatakuan, haura askako ura jaso ta harekin. Ba, botatzen zien bederatzi bat baldakada ur edo hola botatzen jakon erropiari. Usain bat edarraua ta kolore bat edarraua...! Ikustekiak ezin siñistu!

- Gaurko jaboia baiño hobia seguruasko, e?

- Haura, haura, haura... Haura zan [...] ta usain bat...! Edarra! Ta gero zeinek baiño zeinek, erropa zuri edarraua esegi!

11. Baserrira ura nola ekartzen zen

- **Erref:** BER-061/023
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:40:27. **Bukatu:** 00:41:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrira » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Nola ekartzen zuten ura baserrira. Ureta egitea nolako lana izaten zen.

12. Basoak; herri-lurrak. Urteetan zehar eman diren aldaketak

- **Erref:** BER-061/024
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:41:26. **Bukatu:** 00:42:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrira » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Pinu asko sartu da basoetan. Lehen jakiten zuten basoen jabeak zeintzuk ziren, orain ez. Pagoa, haritza nagusi ziren inguruan. Herri-lurrak. Toponimia.

13. Egurrarekin zerikusia zuten lanak

- **Erref:** BER-061/026
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:44:21. **Bukatu:** 00:46:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Lanbideak » Arotzak
- Baserrira » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Pago tantaia. Egur ikusgarria. Egur-botatzea.

14. Herri-basoen inguruko aspaldiko kontuak

- **Erref:** BER-061/027
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:46:07. **Bukatu:** 00:46:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Birraitonaren sasoiko kontuak. Herri-basoa. Toponimia.

15. Baserriko bizimodua; sukaldearen egitura

- **Erref:** BER-061/028
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:46:58. **Bukatu:** 00:47:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Sukaldeari, ezkaratza ("ezkatza") esaten zioten umetan.

Transkripzioa

- Ta oin, ba, sukaldia guk esaten dou. Ta sukaldia danien. Baiña gu umiak giñanien "eskaatza".
- Bai, bai...
- Eskaatza.
- Ondio Bizkaixan-ta eskaratza esaten dabe [batzuk...]
- Bai, eskaatza. Eskaatza. Sukaldeik ez. Eskaatza. Ta guk hemen beti bentania ta zerak esaten eban etorritta, hemengo senittartekua ta sarri [ixotxen eban] ta [...] "Bentania ez da esan bihar, leihua! Zuek ze euskaldun zeate?" Ta, ba, guk entzun douna, edo ikesi douna. Baiña harek "leixua". Ta sukaldeik be ez, eskaratza. Eskaratza.

16. Urtean zehar auzolanean egiten ziren ekintzak

- **Erref:** BER-061/029
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:47:33. **Bukatu:** 00:49:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzolana. Neguan, lurreta egin behar izaten zen. Martiko lehenengo egunera arte merienda gabe egoten ziren. Orduetik aurrera lurreta edo simaurketa egiten bazen, orduan bai merienda. Zer jaten zuten. Dozena bat lagun elkartzen ziren. Garizuman, erle-batzea izaten zen. Neska-laguntzea.

17. Urtean zehar auzolanean egiten ziren ekintzak

- **Erref:** BER-061/030
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:49:47. **Bukatu:** 00:51:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Auzolanean egiten ziren lanak: lurreta, gari-simausketa, arto-simausketa, gari-jotzea, gari-ebakitzea; "igitia". Idiak. Nagusienek lanean erakutsitako zenbait gauza.

18. Auzolanarekin zerikusia duten ipuinak

- **Erref:** BER-061/032
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:51:18. **Bukatu:** 00:51:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Lanean izaten zituzten kontuak. Abarketa zaharrak lurtean ipintzen ziren bata besteari jarraian.

19. Ezti-batzea nolakoa izaten zen

- **Erref:** BER-061/033
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:51:58. **Bukatu:** 00:53:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Arropak: kapela beltza. Erle-batzea nolakoa izaten zen. Ziriarekin ateratzen zuten ezti. Zapata-josten.

20. Antzinako bizimodua baserrietan

- **Erref:** BER-061/036
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:59:51. **Bukatu:** 01:00:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Antzinako bizimodua, lasaia zen. Herrira noiz jaisten ziren. Zedula beharrezkoa zen garaia ezagutu zuen Hilarik.

Transkripzioa

- Trankil bizi. Bai ba! Trankil, ez euan ezeren kezkarik eta zerik ez euan ta. Nun-nundik [kartaren] bat. Gero herrira be urtian biaje bat kontribuziñua, urtian behin pagamentua. Ta neu be, ezkondu aurreko urtien, artien gurien kontribuziñua hamasei duro ta bost erriel edo zan. Ta gero zelulia etxian, ba, personako zelulia. Ta pezetia edo erriel bi edo izeten ei zan bestiena ta etxeko buruana hiru pezeta edo pezeta bi edo, ta haura aguazillak urtian, ointxe setienbrian edo, ta etxez etxe zelulioi partidu ta hauraxe kobrau. Hor, jun biharrik be ez herrira. Zetara?

21. Antzinako bizimodua baserrietan

- **Erref:** BER-061/037
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:00:41. **Bukatu:** 01:01:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argiaren inguruko kontuak. Argi elektrikoa izan aurretik zelan konpontzen ziren.

Transkripzioa

- Neu be... ezkondu ta gero argixa ipiñi giñuan. Hemen auzuan lehentxua. Baiña argirik be ez. Petrolia! Kandelial urrixa. Argi hobia, baiña haura erretzen. Ta hontaiko argi-mutilla, holako lau kuadroko ipurdiakin, ziri bat, hola, gantxuakin. Ta han gantxuan sartu, hola, ahua zabalik, mordazian moduan. Holako alanbre batzuk kanpotik dittuela, kristelik apurtzeke ta konserbatzeko. Batek argixari eutsi, eseitta [...] etxia erreko ete zan edo... Ta txikittako bat edo gero, kriaus koskor edo neska koskor edo... aittajunak-eta behixak jeizten, hari argi ein sukaldien. Ta erresarixua egunero errezau, e! Hori bai! Ta erresarixua errezatzen zanian, gure amandriak "pff" argimutillari. "Zeaittik hori amandria?" ta "Ez dao errezatzeko argi biharrik!" Ala! Gero argixa ipiñi zanien be bai, e! Lau kilobatio, e, lehelengo ipiñi giñuzenian argixak. Kinzia edo dieciseisko bobillo txikixak ta bikin pasau, bi kilobatiokin. Geuk hori, e! Hori, hori neuk!

22. Aisialdia

- **Erref:** BER-061/041
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:07:44. **Bukatu:** 01:10:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Erromeriatara joaten ziren. Boletan egiten zuten.

23. Feria kontuak

- **Erref:** BER-061/042
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:10:06. **Bukatu:** 01:11:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Feria kontuak. Azpitiko feria famatua zen. Aitajaunaren anekdota bat kontatzen du.

24. Baserrian jatekoa ez zen falta izaten

- **Erref:** BER-061/045
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:14:40. **Bukatu:** 01:16:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Goserik ez zuten pasatu. Goizean, berakatz-salda eta gero esnea arto edo ogiarekin. Eguerdian, baba-lapikoa. Lurrezko katiluan salda eta plater handi batean babak. Zurezko koilarak. Sagar-erreak; gazura. Garbantz lapikoa jaietan izaten zen. Nagusitan jaten zen postrea, arroz-esnea. Merienda orduan, gaztaia jaten zuten. Txokolatea kikaretan hartzen zuten.

Transkripzioa

- Guk goserik ez, baiña esango dotsut nik ze jatordu. Kafia, hola, bazkaixan gairian hartzen, korriente jaixan be, nik hamar bat urtekin hasi. Aurretik ez, e! Oin, amandriak-eta hartzen baeben ez baeben, guretao ez, gu gaztiak gñan. Goizian saldia. Goizian, [hola], ohetik jaikitta, ba, iñok hartzen baeban, nik ez dakit amandre zaharrak-eta ze eitten eben, jaiki be berandutxuao eitten zien harek eta, baiña kriaue do hortaiquak ogixa. Ogi zatitxo bana edo armozotara aurrien. Ta, ba, saldia, berakatz saldia lehelengo. Ta gero esnia; edo artuakin edo ogixakin, esnia. Eguardixan baba lapikua. Gairera lehelengo gurien usatzen zan, kuadrilla haundixa be bai, ni gaztia nitzanien gurian pare bat mirabe be bai ta bederatzi bat lagun, zortzi-bederatzi bat lagun beti. Ta katillu lurrezkuak, haundixak izeten zien, lehelengo danak saldia. Ta gero plater haundi batian etarata babia.

- Danok bertatik.

- Erdittik, e! Ta zurezko koillarak! Erdittik! Ta gero urdai zatitxo bana edo, berriz platerian ta bakutxak bana edo, haura be bakutxak tiretu ta erdittik. Ta sagar denporan sagar erriek. Sagardentoria ez zanien, ba... Oin, ba,

beti gurian zela egoten zan, ardixak egoten zien, ba, gazuria egosten zan goizien gaztaia eindda ta hauraxe mamiña nahi ebanak katillutan. Nahi baeen [gorrixa], nahi baeen [harek] nahastuta... hauraxe gaiñian. Baiña kaferik ezta jaixan be ez! Nik hamar bat urte, jaixan hasi giñan lehelengo. Ta garbanzu lapikua, jaixan bai, e! Baiña jaixan hori, e! Garbanzu lapikua. Gero gaiñian kafia orduaintxe. Ta postría, berriz, izeten zan, haundixa zanien hori, arrozkoletxe. Beste gauzarik ez e! Ta merienda gaztaia ta ogixa. Ta gero [hurrengo...] ni gaztetxua nitzenien, gurien amandria zalia zan bera be ta txokolatia eitten ebanien, guri, neri, tazan txokolatia. Baiña kikaretan, e! Ez tazetan, e! Gurien oinddio badare muestrarako lain. Kikaretan e! Holakotxe kikaratxuak. Hiru zopa.

- Gustua hartzeko lain be ez!
- Bai. Kitto!

25. Baserritarrek baserriaren jabeekin izaten zuten harremana

- **Erref:** BER-061/049
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:19:12. **Bukatu:** 01:20:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Hilariren baserriko ugazaba, Etxeaundikoa zen. Gabon aurretik burdi-egurra, burdi-ikatza, garia, etab. eramaten zitzairen jabeei.</p>

Transkripzioa

- Gure ugezaba zan, etxian ugezaba zan Etxeaundikua, Don [Eladio]. Familixia. Hori hor dago palaziua oin be, Santa Mariñako zubixan onduan dagon palazio haundi hori. Haretxen [...] giñan gu. Eta gurien esaten eben, ba, juten zanian edo oilluakin edo bisittiakin... edo... oilluakin edo errentiakin edo juten zienian, ba, eskillara-buruan emoten ei eben arrautza bi ta baso txiki bat bete arda eta ogixa. Ogi biguna. [Txitxiak labe-sua egin] ta etxeko ogixa. Ta haura haundixa! Ta esaten ebela mirebiok ardaua, hau, honek mahastixak dauzke Naparruan, eronak. Ta hango mahatsakin egindakuak, eron etxeko ardaua da. Arda gorri-gorrixa, esaten eben. Basotxo bat ardaukin arrautza bi prijiduta. Bai.

- Orduko aberatsak...
- Bai. Gero eruten zian, ba, burdin-egurra, burdin-iketza eta gabon aurrien garixa, ez dakit zenbat anega. Ez dakit nik horixe; hogeta zortzi anega edo hogeta sei edo esaten eben.

26. Sasoi batean erabiltzen ziren neurriak

- **Erref:** BER-061/050
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:20:17. **Bukatu:** 01:21:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Neurriak: anega; imina (3 kg); "imillauna".

27. Aisialdia baserrian: erromeriak

- **Erref:** BER-061/051
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:21:51. **Bukatu:** 01:22:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriak. Jantziak.</p>

Transkripzioa

- Ta holaxe. Gero, ba, erromerixia. Erromerixia, oin daon moduan erromerixia. Dana dantzia ta erromerixia ta bueno...! Juergie gastau bai, e! Lehengo gaztie, ba, ez dakit, ba, nik, zu, umore haundikua zan! Ta gero jantzixa be, ba, izeten zan, ba, abarketak eta galtzak. Negu ta uda! Ez gero, ez kanbixatzeko zerik. Ta udan einddako soiñekua Gabon zaharreko perixakuen be jertsiakin! Pazkuetarako Bergararako einddakua. Gero, ba, horrek gauzak kanbixatzen hasi zienerako, ba, neu ezkondu ta gero. Oin dala... ba, ezkondu ta nik hogeta hamar bat urte... Handixi hasi zan, handixi hasi zan. Zapatillak ta... Pelukerixarik-eta, berriz, ez. Horrek aberatsok iñudie dana.

28. Neska asko etxetik kanpo inude joaten ziren lanera

- **Erref:** BER-061/052
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:22:39. **Bukatu:** 01:23:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Inudeek 2 urtetan zehar aberatsen semeak hazten zituzten, bularra ematen zieten. Herrira, etxera bueltatutakoan jantzi desberdinak erabiltzen zituzten, burukilak, belarritakoak, tertziopelozko arropak, etab.

Transkripzioa

- Iñudie juten zan orduan, irabazi haundixa ei zan, ba. Ta iñude juten zienak eta iñude etorten zienak eta esaten eben "Bai, horrek, horrek ekarri jon moñua!"

- Iñude zeri esaten jakon?

- Iñudia? Ze esango dotsut, ba? Aberatsak edo... --bai, aberatsa bihar-- aberatsak familixia izeten ebanian, ba, berak ez otsen umiari bularrik emoten. Ta ume jaixoberrixa eukan andria biher zan hari bularra emon ta hazteko. Haura zan iñudia. Erak elejitzen eben, konpontzen zien ta bi urtien enjeneral, umiari bi urtien emoten otsen horrek bularra ta bi urtian

iñude. Ta gero harek bi urte aberatsen etxian eindda, ba... Ta horrek etorten zienian, distingida etorten zien: bai jantzixan, bai buruko-illiak... Ta esaten eben: "Ba, horrek pelukerixetan buruko-illiak orraztuta egonda dare eta". Belarritakuak be diferentiak, tertziopelozko jantzixak... Bai, ba. Han ein be bai, gero emon be bai...

29. Jantzekoen inguruko kontuak

- **Erref:** BER-061/053
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:23:42. **Bukatu:** 01:25:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Arropa kontuak, gaur egunekoak eta ordukoak. Narruzko abarkak.

30. Irakurzaletasuna Osintxun; egunkariak

- **Erref:** BER-061/055
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:27:14. **Bukatu:** 01:28:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Zenbat egunkari saltzen ziren Osintxun. Madrilgo kontuez asko zekien baten anekdota.</p>

31. Antzinako bizimodua baserrietan oso lasaia zen, ordutegi gabekoa

- **Erref:** BER-061/056
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:28:28. **Bukatu:** 01:29:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Denbora neurtu gabe bizi ziren. Eguzkia irten bezain laster esnatzen ziren. Lekaioa. Aitaren kontuak: ardiak jetzi; esnea marmitetan eraman, etab.

32. Herri-basoak; mendia

- **Erref:** BER-061/057

- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:29:56. **Bukatu:** 01:30:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Ardiak, mendian libre egoten ziren. Bera gaztea zenean, behorak ere izaten ziren. Herri-basuak zeudenean, pago tantaia ugariak ziren.

Transkripzioa

- Ta orduan ardixak bakutxa bere sailletan eukitzen zian ala...?
- Ez, ez. Mendixan libre.
- Mendixan libre...
- Bai, bai, bai. Mendixan libre. Hori ez dau hemen iñok ezautu. Ez. Oin, piñua sartzen zanian ta kinki-minkixa hemen ez. Hori ez. Hori ez da sekula ezautu. Gañera, ni gaztia nintzanien, bihorra ta oin be bai. Hemen ahuntzik ez. Ahuntzak kendu ein ei zittuen ni gaztia nintzanian. Aurretik ba ei zien, herri-basuak zienian-ta, baiña gero ahuntzak, ya herri-basuak galdu zienien, ahuntza erretirau ein ei eben.
- Herri-basuak zianien, lehen esan dozu, dana pagodixak ziela, pago-tantaiaxak?
- Bai. Paga-tantaiaxak. Paga-tantaixa dana. Oin be badare, ezta, paga-txarak edo oindio pusketak, ezta? Ba dana! Dana!
- Pago-tantaixa, hor, [...] egongo da ondio...
- Bai, bai. Pagadi edarra be hori... herrixak hartu ei eban bota ta ez piñu sartziaaittik.
- Kanterana.
- Kanterana. Hori da! Kanterana.

33. Elosuko baserritarren bizimodua

- **Erref:** BER-061/058
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:30:43. **Bukatu:** 01:32:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Elosuko baserritarren bizimodua. "Burtirrintzia". Auzolana eta erromeriak.</p>

34. Auzoko neska-mutilen arteko harremanak

- **Erref:** BER-061/060
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 01:32:54. **Bukatu:** 01:33:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Auzoko neska-mutilen arteko harremanak.</p>

35. Inguruko auzokoekin harreman handia

- **Erref:** BER-061/063
- **Iraupena:** 0:06:45. **Hasi:** 01:39:15. **Bukatu:** 01:46:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Inguruko auzokoekin harreman handia. Baserri izenak. Auzo desberdinak.

36. Lapurren inguruko antzinako ipuinak

- **Erref:** BER-061/065
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 01:40:24. **Bukatu:** 01:43:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Kontu zaharrak. Bandido talde batek Pol-poletik Azkoitia aldera txabola bat zuen; lapur-txabola esaten zitzaion. Elosuko bentaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Ba, horrek ei zien zortzi mutil. Horretxek lehelengo, hemen, bandiduak bertakuak hasi ei zien. Zortzi mutillek hartu alkar eta txabolan bizimodua ein eta pentsau ei eben lapurretatik bizi izetia. Eta... Zortzi, hortxe bertan, Ormola baillekuak ei zien.

- Ta Pol-poletik Azkoitti aldera...

- Pol-poletik Azkoitti aldera, Azkoittirako bidien dare horrek txabolok. Oin teilletua ta [...], bi txabola zien. Horrek izena lapur-txabolak, gero haretxeaittik. Hantxe hasi ei eben horrek bizimodua, lapurretatik. Gero, ba, etxetan sartu ta txabolara azaltzen zanian-ta bidera erten ta... Marka txarrien.

- Zuen aurretikuak izengo zien...

- Bai, nere... Horrek hartu zittuenien, nere bisabuela ta nere amandria ta eren sasoi hori. Ni ez artian, ni jaixotzeke. Ta Elusuko Bentan, orduan be Elusuko bentan, Reginan partien tabernia. Ta ogixa erosi edo palta zanian, e, Elusuko Bentara jutun ei zien. Handik galdu ei zien. Ba, harek, itxuria, herrixan baten bati parte emon. Ta parte emon eutsenian, horti edo hemendi, agumentau ezinak be emonda, Gomezkorta aldien ta lapurretia ta

hor ta hemen ta hemen ta lapurretia ta. Fetxorixa haundixak, ardixan ta danian, ta etxetara-ta be bai ta... Mutillak edarrak ei zien. Ta etorten ei zien, etorri ei zien, edo, gurien pasau ei zien jai eguardi arte baten. Tela zurixak piezak, fraka zuri edarrak... bata baiño bestia mutil edarraua esaten eben gurien. Ta etorri ei zien irlandia, irlandak ziela, teliori, irlandia izena. Ta iñok nahi baeban, telak saltzen-ta. Ta ezezetx ba erak, etxian eitten ebela orduan gorutia ta liñua hartu etxien eta, ba, ereri ez otsela faltarik eitten ta. Ta gero, itxuria, etxetako atiek eta gauzak ikusi [...] ta gero gabien atiek jo-ta... Orduan arma formalik be ez ta... Horretxek hasi lehelengo fetxorixak eitten. Hasieria [haretxena ei zan]. Gero harek partia emon. Partia emon ebenian, mikeletiak. Ta etorri ei zien zortzi mikelete edo hamar edo. Inddar haundixa. Preparatzen ei eren nora-nora ertetzeko. Ta bertan hartu. Bertan hartu sei; zortzi ei zien ta bi kanpuen. Bi kanpora ertenda. Bi geratu kanpuen. Gero herrira hartu ei zittuen ta gero herrittik Santoñara edo destinua. Hemen [...] ei euan gero lapurrak. Lapurrak bai lehelengo Bergaran edo, urtebete bat edo, baiña ondo gauzak entenditzen zienien, Santoñara edo fuera e! Lapurreta [...] Errespetua bai e! Oin, oin gitxitxo horixe dao ta oin bildurrez bizi gara. Baiña hortara. Ta gero harek seirak, hortik destinau zittuenian ta, handik abisatzen eutsela benteruari handik libratzen zienian, alkarrekin [ideauta] erela ta hamarretako bat eingo ebela. Haura desapixua! Baiña libratzeke. Ta gero bi kanpuan geratu! Ta harek bixak ate ondota ta pixkat hasi ei zien, baiña nora-nora, bik bakarrik ezin, ta harek erak desaparezidu ei zien norabaittera. Haren arrastorik ez eben emoten. Ibili pixkat bai, baiña harek desaparezidu. Ta gero orduaintxe ipiñittako izena txabola hari lapur-txabolak.

37. Antzinako bizimodua baserrietan: abereak; jatekoak

- **Erref:** BER-061/066
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:43:44. **Bukatu:** 01:44:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Antzinako bizimodua. Baserrietan zeuden abereak: behiak, txerriak, ardiak. Gabonetako jatordua zein izaten zen: garbantzuak txorizoarekin; azalapikoa odolostearekin; arroz-esnea, intxaur-saltsa; okela gisatua.

Transkripzioa

- Ta ze...? Ganaua ta [zertzen] zebe ta... etxietan-ta ze...? Ganaua ta ardi ta...
- Bai, bai, ganaua. Ganaua, ba, behixa, ardixa, txarrixa hazi. Urtien etxian danien txarrixa. Gabonetan txarrixa hil.
- Gabonetan?
- Bai, gabon aurrian. Gabonetan. Txarrixa hil. Ta gero gabonetako jatordua be izeten zan, ba, garbantzua txorixuakin-ta, ta odolostiekin aza-lapikua. Ta gaiñian konpotia, arrozkoletxe ta intxaur-saltsia. Eta okelia be, berriz, estofaua. Dana gixaua. Erre gitxi, dana gixaua izeten zan.

38. Ardien inguruko kontuak

- **Erref:** BER-061/067
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:44:20. **Bukatu:** 01:45:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Ardiak mendian libre lagatzen ziren. Bildotsak jaiotzeko sasoia zein izaten zen. Ardi antzuak. "Ardiola" (ardiak jeztekoa).

39. Esnea alperrik galtzen zenean, zurbildu egiten zen

- **Erref:** BER-061/068
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 01:45:52. **Bukatu:** 01:46:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Esnea ez bada egosten, galdu egiten da; esnea zurbildu egiten zen.

Transkripzioa

- Konparaziño baterako, esnia zuk badaukazu egosten, ezta, ta galdu eitten jatzu. Edo berua izen dalako edo... bueno. Eta "Ene!", oin: "Esnia galdu da!" Baiña gu gaztiak giñanian zurbilddu. "Ene! Esnia zurbilddu da!" Aita Garmendiak [apuntauta... eitten gendun ta]. Oin be Txurrukara etorri da.
- Aitta...?
- Aitta Garmendia.
- Nungua da hori?
- Praillia, Arantzazukua, [Mondraukua]. Urtietan dator, eta oin etorritta dao. Datorren astelehenera arte hor dao. Esplikaziñuak emon, nahi dabenak konfesau ta komurgau...
- Zurbilddu?
- Zurbilddu.

40. Artaldearen inguruko kontuak; ardi-batzailea

- **Erref:** BER-061/069
- **Iraupena:** -1 day, 23:59:34. **Hasi:** 01:46:26. **Bukatu:** 01:46:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ardiak maiatzaren hasieran, mendira eramaten ziren. Ordurako bildotsak saldu egiten zituzten. Bildots-batzailea baserriz baserri joaten zen.

Transkripzioa

- Eta ze... ardixan tresneri zela esaten jakue?
- Ardixa, ardixa, ba, maietzian, hortxe, maietzian sei-zazpitan, ba, mendira.
- Mendira ya...
- Mendira jaso.
- Bildotsak kendu ta...
- Bai, bai. Ala!
- Bildotsak okelatarako edo zetarako...? Nora saltzen zan?
- Bai, bai. Holaxe, bildots-batzailliak errebenderi ta bai, orduan be bai errebenderia. Ta ni txikixa nintzala gaiñera kotxeduna etorten ei zan, karroduna, Osintxura. Oseake, martizten atsaldia edo eguen atsaldia edo eta bildotsak daukanak daukana haritxi [eruen]. Eta haretzek pagatzen ebana hartu ta etxera. Hori gero ez. Gero, ya nik ezautu neban, nere aitta pastoria zela zan ta beti Arrate baillian zela egoten zan, harek Eibarren saltzen zittuan ta Eibarrera martxia. Kanbixau ein zan, baiña ni jaixo nintzan inguruan, artian bildots-batzaillia Osintxura. Hemen. Ta beste lekutan be bai halaxe fango zien. Ta karruekin etorten ei zien ta, ba, haretzek pagatzen ebana hartu, ta emoten ebana, ta etxera. Astuak bildotsak ibiltzeko ta bestela bizkarra.

41. Amandreak goruetan egiten zuen

- **Erref:** BER-073/001
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:

<p>Amandreak goruetan egiten zuen. Haria zelan egiten zuten. Oherako arropa zuria ehundegian egiten zen. Argazkia ere badute, amandrearena.</p>

42. Lihoa noiz egin zuten azkenengoz; haria egiteko lihoak behar zituen prestaketak

- **Erref:** BER-073/003
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Lihoa (linua). Non ereiten zen; zelan prestatzen zen haria egiteko. Azkeneko lihoa berak 19-20 urte zituela irun zuten. Ehulea.

43. Linaziak non ereiten ziren

- **Erref:** BER-073/004

- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:03:59. **Bukatu:** 00:05:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Linuazia soluan ereiten zen.

44. Lihoarekin (linuarekin) egindako arropa

- **Erref:** BER-073/005
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:07:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Arropak. Oherako arropa zelakoa izaten zen.

45. Lihoa jo behar haria egin ahal izateko. Artilearekin eman behar ziren urratsak

- **Erref:** BER-073/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:15:06. **Bukatu:** 00:16:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lihoa (linua) jo. Artilearekin haria zelan egiten den. Sokak. Artilearekin egiten zen lana.

46. Garbiketa nola egiten zen

- **Erref:** BER-073/031
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:54:26. **Bukatu:** 00:55:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Lixiba-harria. Liho-harria (linu-harria). Gariarekin "txanketian" egiten zen.</p>

47. Lihoaren inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-073/032
- **Iraupena:** 0:07:23. **Hasi:** 00:55:37. **Bukatu:** 01:03:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

Lihoa (linua) izpitu. Lihoaren inguruko kontuak. Esaera ezaguna: "Ehunak ehun lan". Azkenengo lihoa non erein zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com